

## **UPV/EHUn IKERTZAILEAK PRESTATZEKO KONTRATAZIOA** **(2020):**

### **IV. MODALITATEA (TUTOREKIDETZA UPPA)**

#### ***Emandako eta ukatutako eskaeren behin betiko zerrenda***

Ikerketa, Garapen eta Berrikuntza Batzordearen (IGBB) onspena lortu ondoren, Ikerketaren arloko Errektoreordetzak argitaratu zuen

#### **UPV/EHUn IKERTZAILEAK PRESTATZEKO KONTRATAZIOA (2020): IV. MODALITATEA (TUTOREKIDETZA – UPPA)**

Deialdiko 5.1.d oinarrian dio modalitate honetarako 3 kontratu eskainiko direla. Eskariak aurkezteko epean, 3 hautagai aurkeztu dira.

Eskariak behin aztertuta, ikusi da 3 hautagaiek betetzen dituztela 3. eta 4. oinarrietan zehaztutako gutxieneko baldintzak, eta denek aurkeztu dituztela 6. oinarrian eskatutako agiriak.

Beraz, eskainitako kontratu kopurua eta aurkeztutako eskari kopurua bat datozenez, ez da beharrezkoa eskarien ebaluazioa egitea eskariak emateko hurrenkera zehazteko.

Hori guztia kontuan hartuta, ERABAKI DA emandako eta ukatutako eskarien behin betiko zerrenda errektoreordetzaren webgunean argitaratzea.

#### **KONTRATAZIORAKO AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTUAK:**

Onuradunek laguntza onartu edo uko egiten duten jakinarazi beharko dute posta elektronikoz [rrhh-inves.dgi@ehu.eus](mailto:rrhh-inves.dgi@ehu.eus) helbidera idatziz.

Laguntza onartu duten onuradun guztiek **2020ko irailaren 30 baino lehen** bidali beharko dituzte, posta elektronikoaren bidez, dokumentu hauek PDF formatuan, [rrhh-inves.dgi@ehu.eus](mailto:rrhh-inves.dgi@ehu.eus) helbidera:

- a. Aurreko beken aitortpena
- b. Gizarte Segurantzako fitxa
- c. Zereginetan hasi izanaren ziurtagiria
- d. Onuradunaren aitortpena
- e. Bi unibertsitateetako doktorego programetako matrikularen gordekina
- f. Doktorego programara sarbidea ematen du(t)en titulua(k) (gradua, masterra, lizentziatura).

Era berean, dokumentazio hori aurkeztu beharko dute UPV/EHUko Erregistro Orokorrean.

Erabili beharreko ereduak errektoreordetzako webgunean daude eskuragarri ("Dokumentuak" izeneko fitxa).

### **HELEGITEAK:**

Erabaki honek administrazio bidea agortzen du eta honako bide hauek daude haren kontra egiteko (aukerak bateraezinak dira):

1. Lehenengo eta behin, aukerako berraztertze errekurtsua aurkez dakioke erabakia eman duen organoari berari hilabeteko epean, jakinarazpena jaso eta biharamunetik kontatzen hasita.

Administrazio errekurtsu hori jarriz gero, eta errekurtsua jarri eta hilabeteko epean erabaki adierazirik jaso ezean, errekurtsua ezetsitzat joa izan dela ulertu beharko da. Horrela gertatuz gero, hurrengo atalean adierazitako auzibidera jotzeko aukera egongo da.

Kasu horretan, administrazioarekiko auzi errekurtsua jartzeko epea sei hilabetekoa izango da, errekurtsua ezetsitzat joa izan den egunaren biharamunetik kontatzen hasita (39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena: 123 eta 124. artikulua; 29/1998 Legea, uztailearen 13koa, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duena: 46. artikulua).

2. Zuzenean, administrazioarekiko auzi errekurtsua jar daiteke Bilboko administrazio auzietako epaitegietan. Horretarako, bi hilabeteko epea dago, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita (29/1998 Legea, uztailearen 13koa, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duena: 8.3 eta 46. artikulua).

Leioan, 2020ko irailaren 11an

**IKERKETAKO DEIALDIEN ATALA**  
**IKERKETAREN GESTIOKO ZUZENDARITZA**  
**IKERKETAREN ARLOKO ERREKTOREORDETZA**

**Emandako eta ukatutako eskaeren behin betiko zerrenda**

KODEA	NAN	BEHIN-BETIKO EBAZPENA
PIFPAU20/01	73128171Q	<b>EMANDAKOA</b>
PIFPAU20/02	05335116J	<b>EMANDAKOA</b>
PIFPAU20/03	12CH00285	<b>EMANDAKOA</b>